

HERRIZ HERRI

Eibar

Telleria-Alberdi senar-emazteen heriotza

Oraintsu, otsailaren* 4ean, Ines bere emazte maltearekin batera, etxean eta bat batean hilak. Emakume maltagarria Ines, glizon zuzena Antonio. Orain gazteek ezagutu dituen lekuak ere (Ocaña, Puerto de Santa María, eta abar) ezagutu izan zituan harek. Antonio eta Ines, orolmen onik utzi dozue bai gure bihotzetan. Izan atseden.

Ikusi ez gendua

«Helga» filmea, hain zuzen, ikusi ez gendua, nahiz eta gure albiste* emate honetan haren alpamena egin. Hamabost edo hogei egun aurretik albisteak prestatu beharrak ba dau berezko arriskua, gauzak egun batetatik bestera aldatzen dira ta. Honelakoren bat gertatu jaku guri ere, «Información y Turismo» dalakoak beharrezko belmena bezperan debekatu eban eta.

Hala ere, ez gengozen hain oker, geure kritika txikia egin genduean. Alde batetik, filmea aurrez ikusita gendualako; eta bestetik, alpatzen genduan jakin-nahia, ikus-mina baino urriago zalako. Horra hor, bestela, Donostiako erantzuna.

San Antolin

Autopista ba doa aurrera, «Atila» moderno bat balitz bezala, ez balta* lili apalena ere hazten, haren zementuzko oin galantek lurra zapaltzen daben lekuan. Oraintsu ikusi dogu egunkarietan Elgoibar-Alzolarako espropiazioen zerrenda luzea. Pinudiak, zelalak, soroak*, basoak, baserriak, etxeak Irentsiko ditu dalako autopista aseगतzak. Bakoltzak berea galtzea izango du minen; hala ere, guk besterik sentitzen dogu, batez ere San Antolinen ermita zaharra galtzea, hain zuzen. San Antolin auzoa, bere ermita ta guzti, mapatik kenduko ote deuskue behin betiko?

Ohar bat

Anjel Zelaletak, 204. zenbakian eta «Euskaldungoa» sallean alpatzen eban «Berriak» aldizkaria, gutxi zabaldu da Eibarren gazte-riaren artean ere. Irakurri dogun gehienoi ez jaku batere gustatu; holakoak zakarretara*, eta kitoi «Saloak», osterak*, ez gutxi ez asko, batere ez da zabaldu. Al eta beste aldizkari batzuk ere ba dabilta.